

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 458990

Alkatearen ebazpena, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez deialdia egiten baita lehiaketa prozedura bidezko musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko 2018-2019ko dirulaguntzetarako.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai (www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hau eskatu ahaliko dute musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak ikasten ari diren, ikastetxe ofizialetan matrikulatuta dauden eta udalerrian urtebetez, behintzat, erroldatuta dauden pertsonak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta dauden eta ikastetxe ofizialetan musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiten ari diren pertsonen laguntzeko dirulaguntzak ematea arautzea, eta, era berean, sustatzea emakumeek eta gizonen modu orekatuan parte hartuko dutela jarduerak egitean.

Ikasketa hauek diruz lagundu ahaliko dira:

- Musika: musika hizkuntza, instrumentua, harmonia modernoa, instrumentu taldea edo comboa eta ahots taldea.
- Arte dramatikoa: antzeppen trebakuntza eta hobekuntza, antzerki zuzendaritzako ikasketak, eszenografia, luminoteknia, soinua eta jantziak eta, azkenik, zinema zuzendaritza.
- Dantza: dantza klasikoko eta garaikideko trebakuntza eta hobekuntza eta koreografiako trebakuntza teknikoa.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2019ko martxoaren 25eko bilkuran onetsi ziren eta maiatzaren 22ko 59/2019 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75erainoko dirulaguntza emango da, gehienez 200 euro.

Gehienezko 200 euro horien muga ez da aplikatuko baldin eta egin beharreko adjudikazioak egin ondoren ez bada agortzen aurrekontu partida. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, eta ez da gaundituko matrikularen prezioaren ehuneko 75.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztu diren eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskin ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2019ko urriaren 1a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Ikastaroa egin den ikastetxearen egiaztagiria, non hau adierazi beharko baita: hasi den ikastaroa eta amaitutakoa, orduen guztien kopurua eta ikaslea ikastaroan benetan izan den orduen kopurua (gutxienez, orduen % 80ra joan behar du), noiz hasi den ikastaroa eta noiz amaitu den, eta ikastaroaren kostu osoa.

Egindako ikasketaren kostua benetan ordaindu izanaren frogagiria.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Elektronikoki sinatutako agiria.

Dura, 2019ko maiatzaren 30a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE